

SARRERA

DBH garaian oinarritzkoa da kontuan izatea duten aldaketa garaia eta taldeko erlazioek eta norberaren identitateen definizioak duten garrantzia. Gainera pentsamendu abstraktua garatzera eta praktikan jartzera bultzatzea.

Kutxa Ekogunera bisita egin aurretik eta ondoren, eskolak aukeratutako tailerraren osagarri diren unitate didaktikoak eskaintzen ditugu. Hauek sakontze saioak direla esan dezakegu, hau da, harrera eta itxierakoak. Saio hauek burutuko den jarduera berriarekin kokatzen laguntzeko beharrezkoak dira. Eskolan hasita, etxean partekatuz eta Kutxa Ekogunearen arteko lotura sortuz, haurren hezkuntza komunitate guztia inplikatu dugu; haurrek ikasketaprozesu esanguratsua izatea gure helburua delako.



BARATZA, MUNDUAN ETA HISTORIAN

Baserrri mundua eta generoa lantzen den unitate didaktikoa da, [Erroa eta Geroa](#) dokumentaletik abiatuta.

Erroa eta Geroa

Zer diote emakume baserritarrek? Non daude? Ezagutzen ditugu euren bizipenak, kezkak, iritziak...? Dokumentalak Euskal Herriko leku oso desberdinetako emakume baserritarren ahotsak jaso ditu.

Gazteenak 30 urte bueltan dabilta, nagusienak 90etik gora. Elkarren zaintzaren eta lur planetaren zaintza beharra inoiz baino ageriago geratu zaizkigu pandemia garaiotan. Lurrari lotutako eta hurbileko nekazaritza eta abeltzaintza iraunkorra landu izan duten edota lantzen duten emakumeak dira, hain zuzen ere, dokumental honetako protagonistak.

Jarduera honek etena eta agroindustriaren eraso eta akaparamendu bortitza jasan ditu. Eta, hala ere, emakumeei esker iraun du eta bizitzari eutsi diote.

[Ikusi dokumentala](#)

Bideoa ikusi eta honako galdera hauen inguruan hausnartu dezakete ikasleek:

- Nekazaritza lanak lehen eta orain
- Nekazaritzaren transmisioaren etena
- Generoaren araberako lan banaketa
- Kontsumo ohiturak
- Ekoizpen ereduak
- Emakume baserritarren eskubideak